Goizuetako Udalbatza, Herriko Etxeko Bilkura Aretoan, **bi mila eta hemezortziko martxoaren 6an** arratsaldeko zazpiak direlarik **ohiko bilkuran** biltzen da ondoren aipatzen diren partaide hauekin:

ITSASO LUJANBIO APEZETXEA
MARIA PILAR APECECHEA ELIZALDE
MARIA JOSEFA AIZPURU SANTESTEBAN
DANIEL OYARZABAL LARRABURU

Eta Udaletxe honetako alkatea, UNAI LOIARTE ANSA

Idazkari lanetan, Miriam Arozena San Miguel, Goizuetako ordezko idazkaria.

Alkateak eguneko aztergai zerrendako lehenengo puntuarekin hasteko agindua eman du

**1.-AURREKO AKTEN ONARPENA**

Alkateak, eguneko aztergai zerrendarekin banatutako, 2018ko abenduaren 19ko ohiko batzarreko aktan, ia norbaitek aldaketaren bat proposatu nahi ote duen galdetzen die Udalbatzako kideei.

Horrelakorik gertatzen ez denez, Udalbatzak aho batez akta onartzea erabaki du.

**2.-GASTUAK ETA DIRUSARRERAK**

Alkateak ondorengo fakturak aurkeztu ditu, onartuak izan daitezen

Ordaindu beharrak, helbideratu gabeak

| | | |
|---|---|---|
| 1 | **EVOLUZZIONA.** Urumea arnastu 2016ko faktura | 180,77 € |
| 2 | **EVOLUZZIONA.** Urumea arnastu 2017ko faktura | 71,87 € |
| 3 | **ESKIZ.** Zubimuxuko web orriaren mantenimentua | 177,87 € |
| 4 | **ANSA JANARIDENDA.** Pilak | 3,40 € |
| 5 | **BXPSPORT**. Jumpfit eta pilates urtarrila 2018 | 1.256,56 € |
| 6 | **APEZTEGUIA BERRIA S.A.** Silikona eta kolorantea | 583,12 € |
| 7 | **ANSA JANARIDENDA.** Aterpeko garbiketa produktuak: komoneko papera, | 15,48 € |
| 8 | **TXIMELA.** Eguberritako argik kentzeko makinan alokairua | 207,02 € |
| 9 | **JUMPFIT.** Otsaileko jumpfit tranpolinen alokairua | 314,60 € |
| 10 | **KOPY LEKU.** Fotokopiadoraren mantenimentua | 134,36 € |
| 11 | **MIGUEL ANGEL LACAMBRA SL.** Udalako motosierren rebisioa | 222,91 € |
| 12 | **LYRECO.** Udalako bulego materiala | 387,02 € |

| | | |
|---|---|---|
| 13 | **ELENA GARCIA.** Karnabaltako apaingarrik | 9,00 € |
| 14 | **RICARDO GALDEANO SANCHEZ.** Udala eta kontsultako gasoila | 654,13 € |
| 15 | **ADARRA.** Pintura beltza eta torniluak | 21,67 € |
| 16 | **CORREOS.** Urtarrileko korreo gastua | 53,65 € |
| 17 | **TTIPI-TTAPA.** Zubimuxuko iragarkia, iñauteritako egitarauan | 54,99 € |
| 18 | **KAXERNA.** ETBren potentzi haunditze lanak antenan | 94,68 € |
| 19 | **ANGEL SALABERRIA**. Mugikorraren funda eta pantaila babeslea | 30,90 € |
| 20 | **CEFERINO APEZETXEA**. Suhiltzaileen Land-Roverran pala konpondu | 154,88 € |
| 21 | **REGISTRO DE LA PROPIEDAD**. 3 nota sinple, elkartasuna- Miriam Arocena | 10,91 € |
| 22 | **BIG MAT MENDITXURI**. Medikuaren etxebizitzako fregaderan mandoa, galtzak | 90,22 € |
| 23 | **DINDAIA**. Goxali egitasmoaren otsaileko faktura | 738,69 € |
| 24 | **ANSA JANARIDENDA**. Espidealdeako auzolanaren ondorengo hamaikatakoa | 23,55 € |
| 25 | **ANSA JANARIDENDA**. Alkasoaldeako auzolanaren ondorengo hamaikatakoa | 53,53 € |
| 26 | **ANSA JANARIDENDA.** Gimnasioko aparatoentzat pilak. | 7,80 € |
| 27 | **GESERLOCAL.** Urtarrileko kontabilitate aholkularitza | 234,34 € |

Ordaindu beharreko gastuak: 5.787,92€

Udalbatzak gastuak aztertu ondoren helbideratu gabeko fakturak ordaintzea eta helbideratuak onartzea erabaki du aho batez, salbu Evoluzziona-ren 180,77€tako eta 71,87€tako faktura

Gastu helbideratuak

| | | |
|---|---|---|
| 1 | **BIDANE HUICI ANTON**. Xalto eskolaren garbiketa lanak, urtarrilekoa | 1.576,12 € |
| 2 | **MARISOL APEZETXEA.** Udal eraikinen garbiketa lanak, urtarrileko faktura | 1.007,22 € |
| 3 | **OIHANA INSAUSTI.** Eskulanak ikastaroaren urtarrileko faktura. | 356,25 € |
| 4 | **ANIMSA.** goizueta.eus domeinua | 73,29 € |
| 5 | **MARAL 2005.** Frontoiko txosten judizialaren erredakzio lanak | 1.573,00 € |
| 6 | **GESERLOCAL.** Azaroko kontabilitate aholkularitza | 267,92 € |
| 7 | **APEZTEGUIA BERRIA.** Gune publikoak berritzeko materiala. | 3.024,40 € |
| 8 | **ORTIZ DE ELGUEA.** Urtarrileko aholkularitza | 225,01 € |
| 9 | **GOIZUKOOP, S.Coop.** Suhiltzaileen ibilgailuen gasoila | 44,37 € |
| 10 | **GOIZUKOOP, S.Coop.** Udalako ibilgailuen gasoila | 70,08 € |
| 11 | **ALLIANZ.** Istripu kolektiboen asegurua | 183,88 € |

| | | |
|---|---|---|
| 12 | **ALLIANZ.** Suhiltzaileen asegurua | 5.091,35 € |
| 13 | **ARALAR MUSIKA ESKOLA**. 2017-2018 ikasturtearen 2. %50a | 7.822,82 € |
| 14 | **EUSKARA MANKOMUNITATEA**. Eskualdeko mankomunitatea | 1.772,50 € |
| 15 | **EUSKARA MANKOMUNITATEA.** Mankomunitate orokorra | 5.543,00 € |
| 16 | **OIHANA INSAUSTI.** Eskulanak ikastaroaren otsaileko faktura. | 356,25 € |
| 17 | **MARISOL APEZETXEA.** Udal eraikinen garbiketa lanak, otsaileko faktura | 1.007,22 € |
| 18 | **BIDANE HUICI ANTON.** Xalto eskolaren garbiketa lanak, otsailekoa | 1.576,12 € |
| 19 | **APEZETXEA ANAIAK, S.L.** Plazako obraren lan pendienteak | 8.036,09 € |
| 20 | **APEZETXEA ANAIAK,S.L.** Asinkoko argiteri obrak | 3.524,16 € |
| 21 | **GIZARTE SEGURANTZA.** Abenduko gizarte segurantza | 3.419,05 € |
| 22 | **GIZARTE SEGURANTZA.** Urtarrileko gizarte segurantza | 3.424,85 € |
| 23 | **GOIENER.** 2018/01/25tik 2018/02/28ra | 2.941,72 € |
| 24 | **VODAFONE**. 2018/01/25tik 2018/02/28ra | 581,32 € |
| 25 | **MOVISTAR.** 2018/01/25tik 2018/02/28ra | 336,39 € |

Helbideratutako gastuak: 53.834,38€

**Gastuak guztira: 59.622,30**€

Ondoren, Alkateak, diru sarreren berri eman du

**DIRUSARRERAK**

| | | |
|---|---|---|
| 1 | **ERRENTAK.** Udal eraikinen errenta, otsailekoa | 225,49 € |
| 2 | **ZERGADUNAK.** Ibilgailu berrien gaineko zerga | 370,32 € |
| 3 | **ZERGADUNAK.** Obra, eraikuntza gaineko zerga | 20,25 € |
| 4 | **ZERGADUNAK.** Gimnasioko kuota. Helbideratuak. | 2.562,50 € |
| 5 | **NAFARROAKO GOBERNUA.** Zabortegiko dirulaguntza 2.%40 | 209.338,95 € |
| 6 | **NAFARROAKO GOBERNUA.** 2016-2017 mendi kanpainaren dirulaguntza | 43.340,81 € |
| 7 | **NAFARROAKO GOBERNUA.** 2017-2018 mendi kanpainaren dirulaguntza | 37.280,92 € |
| 8 | **NUKF.** Iberdrola. 4. hiruhilabeteko tasa | 1.142,40 € |
| 9 | **NUKF.** Endesa. 4. hiruhilabeteko tasa | 21,18 € |
| 10 | **NUKF.** Goiener. 4. hiruhilabeteko tasa | 82,78 € |
| 11 | **NUKF.** Gas Natural Fenosa. 4. hiruhilabeteko tasa | 23,66 € |
| 12 | **NUKF.** Acciona Green. 4. hiruhilabeteko tasa. | 1,09 € |

| | | |
|---|---|---|
| 13 | **NAFARROAKO GOBERNUA.** Telefonikaren zerga | 554,27 € |
| 14 | **NAFARROAKO GOBERNUA.** Estatuko tributoak | 241,53 € |
| 15 | **GESERLOCAL.** Urtarrileko bilketa ejekutiboa | 133,81 € |
| 16 | **ZUBIMUXU.** Urtarrileko egonaldiak, Obramas | 104,00 € |

**Guztira dirusarrerak: 295.443,96€**

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da, eta onartu egin ditu aho batez.

**3.-INFORMAZIOA**

**3.1.-ESKUALDEKO EUSKARA MANKOMUNITATEA.**

Eskualdeko Euskara Mankomunitateko bilera deialdia egin zen , otsailaren 21erako, arratsaldeko 16.30tan Leitzako Batzar Aretoan.

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

**3.2.LEITZA, GOIZUETA, ARESO ETA ARANOKO GIZARTE ZERBITZUETAKO MANKOMUNITATEA. Prebentzio Batzordea eta Berdintasun Batzordea.**

Prebentzio Batzorderako bilera deialdia egin zen otsailaren 26rako, arratsaldeko 16.30tan. Jarraian Berdintasun Batzorderako bilera deialdia egin zen, arratsaldeko 17.30tan biek Goizuetako Udalean.

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

**3.3.RAMON GARCIA ASTIZ ARKITEKTUA. “Informe sobre patologías constructivas en Frontón Municipal**”.

Ramon Garcia Astiz arkitektuak, “Goiko Pilota Plaza”-ko teilatuan eta lurzoruaren sortu diren urritasunak aztertzen dituen txostena egin du Udalak eskatuta.

Txostenaren arabera, teilatuari dagokionean, ez da proiektuan aurreikusitakoa jarri; jarri den hau teilatuaren gainkaldetik atornilatu egin da, tornilu hauei babesik jarri gabe, dilatazioaren eraginez, ura filtratzen delarik. Proiektuan aurreikusitako estalia ematea proposatzen du soluzio modura.

Lurzoruari dagokionean, proiektuan aurreikusitakoa jarritakoan, obra exekuzio garai berean, kentzeko beharra sortu zela dio, jarri eta denbora gutxira zartatzen hasi zelako. Lurzoru guztia kendu eta “epoxi” bidezko dena berritzea proposatzen du soluzio modura.

Soluzio bide hauen balorazio ekonomikoa ere egin du, 40.736,80€ BEZ-arik gabe.

Udalbatza, jakinaren gainean gelditu da.

**3.4.-LANDA GARAPEN, INGURUMEN ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO DEPARTAMENTUA. Inguru Naturaleko Zerbitzua. Eskualde Atlantikoa Kudeatzeko Atala.**

Artikutzako “Comité Pilotaje 2018. ZEC Artikutza” deialdia egin da martxoaren 9rako, goizeko 9tan Goizuetako Udalean. Bilera honetan, Artikutzaren ordenazio proiektuaren zirriborroa, 2017an zehar egin diren azterlan desberdinen azalpenak, eta 2018an zehar egingo diren azterlanak tratatuko dira, besteak beste.

Aldi berean egun bererako beste deialdi bat egin da, eguerdiko 12.00tan, Goizuetako Udalean, hau Artikutzarekin muga egiten duten toki entitateak eta Donostiako Udala. Bilera honetan mugakide diren herritako larren gainean egin den azterketa lanen ondorioak tratatuko dira.

**3.5.-NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEN FEDERAZIOA.**

NUKF-ak sustatu duen , “Hiri Eremuen Berreskurapena” diru-laguntza deialdian, Goizuetako Udalaren alde, 2.082,92€tako diru-laguntza onartu da. Diru-laguntza hau, udalak, herriko etxean egin dituen leihoan pintatze eta mantenimendu lanetarako eskatu du.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

**3.6.- NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEN FEDERAZIOA.**

Joan den otsailaren 13an ospatutako Batzorde Betearazlean aztertutako gaien berri jaso da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

**3.7.-NILSA**

Nilsatik jakinarazten da, Nafarroako Hiri Erabilerarako Uraren Ziklo Integralaren Plan Zuzentzailearen parte-hartze prozesua aurkeztu dela, eta orain zonaldeko bilerak egingo direla, Goizuetari dagokiona kokapen geografikoagatik, gaur Lakuntzan zen arratsaldeko 6tan.

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

**3.8.-AÑARBEKO URAK**

Añarbeko Urak-ek Goizuetako Udalari erantzun dio, Añarbeko urtegiko lur-irristatze bat egonkortzeko obrak egiten ari dela, eta obra hauek ez diotela Goizuetako udalerrian eragiten, Oiartzungo aldean egiten ari direla obrak, Oiartzungo Udalaren baimena jaso dutelarik.

Erantzun hau Goizuetako Udalari eman zaio, honek, Añarbeko Urak-eri, errekerimendu idatzia egin diolako, Urraideko Lepoan nabaritu den obra mugimendua dela eta, dagokion proiektua aurkeztu dezan udalean, aztertu eta , Goizuetako Udalaren obra baimenik behar duen edo ez baloratzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

**3.9.-Tokiko Agenda 21**

Ingurumen Departamentutik jakinarazi da, joan den otsailaren 12an Tokiko Agenda 21-ak egiteko diru-laguntza deialdia argitaratuko dela. Aldi berean, jakinarazi dira deialdi honen ezaugarriak, eta aurreratu da, martxoan Tokiko Agenda 21ak exekutatzeko diru-laguntza deialdia ere argitaratuko dela, aurreko urteetako deialdiarekiko aldaketa esanguratsuak dakarkilarik.

Udalbatza jakinaren gainean zegoen

**3.10.-CAJA NAVARRA FUNDAZIO**

Caja Navarra Fundaziotik Goizuetako Udalari jakinarazi zaio, ezeztu egin zaizkiola, Caja Navarra Fundazioko diru-laguntzetara eskatu dituen bi proiektuen aldeko diru-laguntzak. Ingurumen Jasangarritasunaren atalean, 2017/2018 mendi kanpainarako eta Kirol atalean, Goizutrail mendi lasterketarako eskatu zituen diru-laguntzak Goizuetako Udalak.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

**3.11.-KANTAURIKO UR KONFEDERAZIOA**

Kantauriko Ur Konfederazioak jakinarazten du, otsailaren 6an, Berdabio SA-k baimena eskatu duela, Berdabioko Zentraleko kanalera eroritako zuhaitzak garbitu eta kanal konpontzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

**3.12.-LEITZA, GOIZUETA, ARESO ETA ARANO-ko EUSKARA ZERBITZUA**

Bidasoa Leitzako Basozaingoaren bulegora hirugarren mendizain bat bidali zuten, euskalduna ez den langile bat. Euskaraz ez jakiteak bere eguneroko jardunean eragiten dio, eta era berean herritarrei eragiten die, euskaldunen hizkuntza eskubideak ez baitira betetzen. Aipatutako basozainak, eskualdeko zazpi herritan, Leitza, Goizueta, Areso, Arano, Ezkurra, Eratsun, Saldisen hain zuzen ere.

Egoera ikusirik, Leitza Goizueta, Areso eta Aranoko Euskara gutun bat prestatzeko eskatu zitzaion, zazpi herrietako alkateek sinatu dutena. Gutun hau Nafarroako Gobernuari bidaliko zaio, eta Uemak, Parlamentuan agerraldia eskatu du, mendizainaren lanpostuan hizkuntz eskakizuna eskatuz.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

**3.13.-NAFARROAKO INGURUMEN KUDEAKETA SA**.

2018ko zerbitzuen tarifak zein diren jakinarazi da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

**3.14.-NAFARRIAKO PARLAMENTUA**

Nafarroako Parlamentutik jakinarazi da, “Parlamentu baten Irudiak” argazki erakusketa inauguratu dela. Erakusketa honetan, Foru Komunitateko legebiltzarraren lau hamarkada laburbiltzen dira, eta herri batetik bestera ibiltzeko aukera dagoela azaltzen da. Interesa izan ezkero protokolo zerbitzuarekin harremanetan jarri beharko da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

**3.14.-MENDIALDA MANKOMUNITATEA**

Mendialdea Mankomunitateko Lehendakariaren idatzia jaso da, edukiontzietan agertu diren ehiza hondakinak direla eta, arazo honetan guztion partehartzea eskatuz.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

**3.15.-NAFARROAKO INGURUMEN KUDEAKETA SA**

Nafarroako Ingurumen Kudeaketa SA-ak, Goizuetako Udalari proposamena egin dio, euri neurgailu bat, Nilsaren araztegian kokatzeko

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

**3.16.- NAFARROAKO INGURUMEN KUDEAKETA SA. LIFE IREKIBAI**

Goizuetako Udalari jakinarazi zaio, aurtengo ingurumen egunaren harira, 2018ko ekainaren 2an egingo dena, ibaiertzen garbiketa egingo dela boluntariotza ekimenak sustatuz, Baztan- Bidasoa, Urumea eta harroetako edozein tokitan garbiketa lanak eginez.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

**3.17.-OIARTZUNGO UDALA**

Oiartzungo Udaletik bando bat jaso da, Oiartzungo udalerrian kokaturiko Herri Onurako Pikokarate, Martuzenegi, Kausua eta Zaria mendietan larrazteko eskubiderik gabeko abereak dabiltzala larrean libre. Deia egiten zaie abereen jabeei, abereak menditik ateratzeko

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

**3.18.-CEDERNA GARALUR**

Cederna Garalurtik, jakinarazi da, lizitazio elektronikoaren gaineko plataformaren berri jaso da, datorren urriaren 18tik Aurrera derrigorrezkoa izango dena, plataformaren gainean egingo diren ikastaro epeen berri ematen da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

**3.19.-NEDGIA ARAGON SA.**

Nedgia Aragon S.A-k, Goizuetako Udalari helarazi dio, propano gasaren instalazioak berritzeko planoak.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da

**3.20.-LANDA GARAPEN, INGURUMEN ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO DEPARTAMENTUA. Inguru Naturaleko Zerbitzua**.

Ingurumen eta Lurraldearen Antolakuntzako Zuzendari Nagusiaren 2017ko abenduaren 26ko 738 eta 27ko 757 ebazpenen bidez, Goizuetako Udalaren alde 2016/2017 mendi kanpainako diru-laguntzen ordainketa agintzen da.

Goizuetako udalari dagokionean , mantenimendu lanetan 55.905,40€ko gastua justifikatu du eta 43.340,80€tako diru-laguntza jaso du. Burugorriko pistari dagokionena, 62.492,48€tako gastua justifikatu da eta 37.280,93€tako diru-laguntza jaso da.

**3.21.-TOKI ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARITZA NAGUSIA. Toki Azpiegituren Zerbitzua**.

Goizuetako Udalari 50.184,81€ko diru-laguntza onartu zaio, Tokiko Inbertsio Planean libreki erabaki beharreko inbertsiotarako. Goizuetako udalak, diru hori inbertsio desberdinetan gastatzeko egokitasun txostenak eskatu dizkio Toki Azpiegituren Zerbitzuari, eta txosten guztiak aldekoak izan dira. Inbertsioak hauek dira:

Asinkon euri uren eta argiteriaren berritzea, Xalto eskolako kanpoko argiteriaren berrikuntza LED sistemara, Makina Eskabadora erosketa, Tifanitxo eraikiaren birgaitze obra, Herriko Parkearen berritze obra, Dantzatako Lokaleko leihoak eta komona berritzeko obra, Bidegorriko obra eta Artikutzako bidea berritzeko obra.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

**4.-ESKAERAK**

**4.1.-AMAZABAL, BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA. Dirulaguntza eskaera**

Leitzako Amazabal Institututik, Goizuetako udalari jakinarazten zaio datorren apirilaren 27an, arratsaldeko 5.00tan Leitzako pilotalekuan, Musika Makrokontzertu bat burutuko dela. Kontzertu honetan, Doneztebeko eta Leitzako Institutuetako ikasleek parte hartuko dute.

Horrenbestez, udalari ekitaldi honen babesle izateko eskatzen zaio, diru-laguntza aportazioa eginez, ekitaldiaren aurrekontua 2000€koa izanik.

Aldi berean Institutuko ikaslego osotik zenbat ikaslek parte hartzen duten kontzertu honetan jakinarazten zaio Udalari, hau da 101 ikaslek, hauetatik 6 Goizuetarrak, haur bakoitzaren kostua 19,80€ izanik.

Idazkariak udalbatza ohartarazten du, diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hari buruzko uztailaren 21eko Errege Dekretuaren arabera, diru-laguntzak zuzenean onartzeko, udal aurrekontuan zehazki izendatuta jasoak egon behar dutela eta dagokion hitzarmen bidez arautuak egon behar dutela.

Udalbatzak, idazkariaren ohartarazpenaren jakinaren gainean, eskaera aztertu ondoren, aho batez erabaki du, zuzenean 118,80€ko diru-laguntza ematea Amazabal Institutuaren alde. (19,80€x6).

**4.2. CEDERNA GARALUR.2018ko Kuota**

Cederna Garalurtik Goizuetako Udalari jakinarazi zaio, 2018 urteko kuotaren %60a urtarrilaren 10ean kobratuko dela eta gelditzen den %40a uztailean.

Aldi berean kuotaren % 100 urtarrilean bertan ordaindu dezaketen udalei deia egiten zaie, ordainketa egiteko, 2018ko lehenengo seihilabetean tesoreria desorekak aurreikusten direlako Cederna Garalur Elkartean.

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren, 2018ko kuotaren % 60aren gainean egin den 2.179,65€tako kargua onartu du.

**4.3.UEMA- Udal Euskaldunen Mankomunitatea- 2018. Urteko kuota**

2017ko otsailaren 15eko idatzi bidez, Uema-tik Goizuetako udalari 2018 urteko kuota zenbat den jakinarazten zaio eta ordaintzeko eskaera egiten zaio. Goizuetako udalari, biztanle kopuruaren arabera 5.255,77€tako kuota ordaintzea tokatzen zaio.

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren aho batez erabaki du, 2018 urteko 5.255,77€tako kuota ordaintzea.

**4.4.HERRI URRATS 2018. Diru-laguntza eskaera**

Herri Urrats-eko Lehendakaria Goizuetako Udalera zuzendu da, maiatzaren 13an Senperen ospatuko den Herri Urrats jaiaren 34garren edizioaren aldeko diru-laguntza eskatuz.

Idazkariak udalbatza ohartarazten du, Azaroaren 17ko 38/2003 diru-laguntza Orokorren Legeak agintzen duen moduan, diru-laguntzak zuzenean onartzeko, aurrekontuan hala izenduak egon behar dutela eta dagokion hitzarmena sinatu behar dela onuradunarekin. Goizuetako udalaren aurrekontuan badago halako diru-laguntza izendua aurreikusia eta dagokion hitzarmena sinatu beharko litzake

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren eta idazkariaren ohartarazpenaren jakinaren gainean, aho batez erabaki du, joan den urtean bezala, 100€tako diru-laguntza onartzea zuzenean eta hitzarmenik ez egitea.

**4.5.XOLE APEZETXEA SALAVERRIA. Uharringo zelaitik Azkongatarako bidea itxia**

Xole Apezetxea Salaverria Goizuetako Udalera zuzendu da eta adierazi du, Uharringo Zelaitikan Azkongatarako bidea eta Kapiotara dion bidea itxia eta pasorik gelditu dela, pinu matarrasa bat egin ondoren.

Ondorioz eskatzen du bidea lehenbailehen libre eta garbitua uztea, eta azaltzen du beraiek, bi matarrasa egin izan dituztela eta bidea ez dela inoiz itxia egon

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren, aho batez erabaki du jakinaraztea, egiaztatu dela pasoa badela eta jakitun dela bidea txukundu beharra dagoela, baino eguraldiak ez du lagundu pista egokitze lanak egiteko. Erabaki da, udalak jarraipena egingo duela bidea txukun utzi dadin, eguraldiak laguntzen duenean.

**4.6.GOIZUETAKO OSASUN ZERBITZUKO LARRIALDIETAKO LANGILEN SALAKETA.**

Goizuetako larrialdiak hartatzen lan egiten duten langilegoaren baldintzak salatzen dituen idatzia aurkeztu da Goizuetako udalean, langilegoaren sinadura zerrenda batekin.

Idatzian argudiatzen dena da, Goizuetan astezko eta asteburuetako larrialdi arreta eman ahal izateko 4 mediku eta 4 erizain beharko lirakeela, 6000 orduko arreta emateko eta 1457 orduko jardunarekin. Osasunbidea eta Nafarroako Gobernuak behar hauei ihes eginez, 3554 orduko jardunaldiak egitea behartzen dituela langileak, jardun honetatik 1500 ordu guardia lokalizatua izendatuz, naiz eta jakin guardia horiek presentzialak izan behar dutela. Hau dela eta baldintza negargarri horiek ez mantentzeko eta guardia lokalizatuak ezabatzea aldarrikatzen da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

**5.-NEKAZARITZA POLITIKA ERKIDEAREKIN (PAC) ERLAZIONATUTAKO HERRI LURREN APROBETXAMENDUA ESKATU**

**DUTEN ESKATZAILEEN ZERRENDA: ALEGAZIOEN EBAZPENA ETA BEHIN BETIKO ONARPENA**

Kontutan izanik, 2017ko martxoaren 6ko alkatearen bando bidez iragarri zen Udalaren herrilurretako aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantzaren 30 garren artikuluak agintzen duenaren arabera, 15 egun balioduneko epe irekiera, martxoaren 7tik martxoaren 27 bitartean, intereseko duenak herrilurretako larreen aprobetxamendua eskatu ahal izateko.

Kontutan izanik, 2018ko urtarrilaren 30ean ospatutako Udalbilkuran aho batez onartu zela, herri lurretako larreen aprobetxamendua eskatu duten eskatzaileen zerrenda behin behinekoz, esleitu beharreko aprobetxamendua eta haren kokapena zehaztuz, eta 15 egun balioduneko epea irekiaz egoki juzgatzen ziren alegazioak aurkez zaitezen, eta alegaziorik egon ezean zerrenda behin betiko onartuko zela.

Kontutan izanik, aipatutako alegazio epea otsailaren 1etik 21era bitartean irekia egon dela

Kontutan izanik, alegazio epean ondorengo alegazio idatziak aurkeztu direla:

- Maria Apecechea Lujambiok, behin behineko esleitu zaizkion herri lurren larreen aprobetxamendu hektareaz gain beste hektarea bat gehiago eskatzen du, bere terreno partikularrak direnekin nahikoa ez duelako.

- Begoña Apezetxea Perurenak, behin behineko esleitu zaizkion herri lurren larreen aprobetxamendu hektareaz gain beste 0,5 hektarea gehiago eskatzen du, bere terreno partikularrak direnekin nahikoa ez duelako

- Lucia Goizueta Goizuetak, behin behineko esleitu zaizkion herri lurren larreen aprobetxamendu hektareaz gain beste 0,1 hektarea gehiago eskatzen du, bere terreno partikularrak direnekin nahikoa ez duelako

- Francisco Huici Perurenak, behin behineko esleitu zaizkion herri lurren larreen aprobetxamendu hektareaz gain beste 0,1 hektarea gehiago eskatzen du, bere terreno partikularrak direnekin nahikoa ez duelako.

- Arantxa Oyarzabal Zubeldiak, behin behineko esleitu zaizkion herri lurren larreen aprobetxamendu hektareaz gain beste 0,5 hektarea gehiago eskatzen du, bere terreno partikularrak direnekin nahikoa ez duelako.

- Mari Carmen Perurena Altamirak, behin behineko esleitu zaizkion herri lurren larreen aprobetxamendu hektareaz gain beste 0,1 hektarea gehiago eskatzen du, bere terreno partikularrak direnekin nahikoa ez duelako

- Jose Miguel Zugarramurdi Cestauk, behin behineko esleitu zaizkion herri lurren larreen aprobetxamendu hektareaz gain beste 0,80 hektarea gehiago eskatzen du, bere terreno partikularrak direnekin nahikoa ez duelako

-.Enrique Huici Zubirik, 0,25 hektareako herri lurretako larreen aprobetxamendua eskatu du PAC-aren dirulaguntza eskatzeko, bere terreno partikularrak direnekin nahikoa ez duelako. Eskatzaile honek, eskaera epean ez du eskaerik egin.

-.Jose Juan Indacoechea Salaverriak, 0,25 hektareako herri lurretako larreen aprobetxamendua eskatu du PAC-aren dirulaguntza eskatzeko, bere terreno partikularrak direnekin nahikoa ez duelako. Eskatzaile honek, eskaera epean ez du eskaerik egin.

-.Lazaro Perurena Narvartek, 0,1 hektareako herri lurretako larreen aprobetxamendua eskatu du PAC-aren dirulaguntza eskatzeko, bere terreno partikularrak direnekin nahikoa ez duelako. Eskatzaile honek, eskaera epean ez du eskaerik egin.

Alegatzaile eta eskatzaile berri hauek, alegazioa eta eskaera udalean egin dutenean hitzez argudiatu dutenez, urte luzez PAC-erako erabiltzen zituzten terreno partikularren azalera aurtengoan ere nahikoa izango zutela uste zuten. Baina, Nafarroako Gobernuak, 2017an PAC-erako deklaratu ziren terreno partikularren azaleraren gainean egin duen inspekzio baten ondorioz azalera murrizketak egon direla, murrizketa horren berri udalean herri lurretako larreen aprobetxamendua eskatzeko epea pasa ondoren jakinarazi zaielarik eta ondorioz, murrizketa honi dagokion azalera herri lurretako larreetatik eskuratzeko eskaera epean egiteko aukera ez dutela izan.

Idazkariak Udalbatza ohartarazten du, eskaera epean eskaerik egin ez duten eskatzaileek ez daukatela alegatzeko objeturik, epe barnean eskaerarik egin ez dutelako.

Udalbatzak aurrekin hauek kontutan izanik, erabakia bozkatu ondoren, honakoa erabaki du:

1.-Epe barruan eskaera egin duten interesdunen alegazioak, aho batez modu honetan ebaztea:

-Larre izaera duen herri lur sobrantea badagoenez, Maria Apecechea Lujambio, Apezetxea Perurena Begoña, Lucia Goizueta Goizueta, Francisco Huici Perurena, Arantxa Oyarzabal Zubeldia, Mari Carmen Perurena Altamira eta Jose Miguel Zugarramurdi Cestauren alegazioak onartzea, eskatutako hektarea gehigarria esleituz, behin betiko onartutakoen zerrendan agertzen den gisara.

2.-Epez kanpo eskera egin duten interesdunen eskaera, lau aldeko boto eta kontrako batekin, modu honetan ebaztea:

-Udalak ulertzen duela Nafarroako Gobernuak egindako azalera errebisioen berri ez dutela izan interesdunek eta honek akats batera eraman dituela alegatzaileak; beraien terreno partikularrekin nahikoa izango zutelaren ustea, aurreko urteetan bezala. Akats honetan eta aldaketen jakinarazpena egin den momentuak eraman dituela eskatzaileak herri lurren aprobetxamendurik ez eskatzea zegokion unean. Guzti hau kontutan hartuta eta larre izaera duen herri lur sobrantea badagoenez, Enrique Huizi Zubiri, Jose Juan Indacoechea Salaverria eta Lazaro Perurena Narvartek egindako eskaera onartzea, eskatutako hektareak esleituz, behin betiko onartutakoen zerrendan agertzen den gisara.

2.Aho batez, akats zuzenketak honela kitatzea ebatzi da.

-99 poligonoko 997 partzelan, Milagros Escudero Zubeldiaren behin behineko esleipenean, akats aritmetiko bat egon da, 7,53 hektarea esleitu dira behin behinean, 8,70 esleitu beharrean.

-99 poligonoko 997 partzelan, Gaztaotza, Sdad. Apezetxea y Otros-en behin behineko esleipenean, akats aritmetiko bat egon da, 70,02 hektarea esleitu dira behin behinean, 72,02 esleitu beharrean.

Akats zuzenketa hauek, behin betiko onartutakoen zerrendan zuzenduta agertuko dira.

4.-Behin betikoz herri lurretako larreen aprobetxamendua eskatu duen abeltzain eskatzaileen zerrenda onartzea, esleitu beharreko aprobetxamendua eta haren kokapena ondorengo eranskinean zehazten den moduan

5.-Akordio honen berri alegatu duten pertsonei ematea

6.-Akordio hau Udalaren iragarki taulan argitaratzea.

**ERANSKINA**

**EPE BARNEAN ALEGAZIOA EGIN DUTENEN BEHIN BETIKO ZERRENDA**

| NAN | **IZEN ABIZENAK** | **Pol** | **Partz** | **Behin Behineko Esleipena (Hektareak)** | **Behin Betiko Esleipena (Hektareak)** |
|---|---|---|---|---|---|
| 15256151-K | APECECHEA LUJAMBIO, MARIA | 99 | 997 | 120 | 121 |
| | | | | | |
| | | | | | |
| 34096423-G | APEZETXEA PERURENA, BEGOÑA | 99 | 997 | 35,90 | 36,40 |
| 34083916-D | GOIZUETA GOIZUETA, LUCIA | 99 | 997 | 10 | 10,01 |
| | | | | | |
| 15939208-R | HUICI PERURENA, FRANCISCO | 99 | 997 | 17,86 | 17,96 |
| 72439802-Z | OYARZABAL ZUBELDIA, ARANTXA | 99 | 997 | 18,95 | 19,45 |
| 15997747-M | PERURENA ALTAMIRA, M.CARMEN | 99 | 997 | 5,29 | 5,39 |
| 15922592-Z | ZUGARRAMURDI CESTAU, JOSE MIGUEL | 99 | 997 | 8,69 | 9,49 |

**EPEZ KANPO ESKAERA EGIN DUTENEN BEHIN BETIKO ZERRENDA**

| **NAN** | **IZEN ABIZNENAK** | **Pol** | **Partz** | **Behin Behineko esleipena (Hektareak)** | **Behin Betiko esleipena (Hektareak)** |
|---|---|---|---|---|---|
| 72618946-B | HUICI ZUBIRI, ENRIQUE | 99 | 997 | 0,25 | 0,25 |
| 15046764-A | INDACOECHEA SALAVERRIA, JOSE JUAN | 99 | 997 | 0,25 | 0,25 |
| 15860697-N | PERURENA NARVARTE, LAZARO | 99 | 997 | 0,1 | 0,25 |

**AKATS ZUZENKETA EGIN ONDORENGO BEHIN BETIKO ZERRENDA**

| NAN | IZEN ABIZENAK | Pol | Partz | Behin Behineko esleipena (Hektareak) | Behin Betiko Esleipena (Hektareak) |
|---|---|---|---|---|---|
| 72661082-B | ESCUDERO ZUBELDIA, MILAGROS | 99 | 997 | 7,53 | 8,7 |
| E31688179 | GAZTAOTZA, SDAD APEZETXEA Y OTROS | 99 | 997 | 70,02 | 72,02 |

**BEHIN BETIKO ONARTUTAKO ZERRENDA OSOA**

| NAN | IZEN ABIZENAK | Polig. | Partz. | Rez. | Hekt. |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | |
| 72546585-P | ALBISU SANCHEZ, ANXO **160** | 1 | 15 | 1 | 4,59 |
| | | 1 | 21 | 1 | 1,32 |
| | | 1 | 21 | 2 | 0,22 |
| | | 1 | 21 | 4 | 30,3 |
| | | 1 | 21 | 20 | 2,16 |
| | | 1 | 24 | 1 | 0,60 |
| | | 1 | 21 | 16 | 1,91 |
| | | 1 | 30 | 1 | 9,23 |
| | | 1 | 30 | 2 | 0,19 |
| | | 2 | 234 | 1 | 1,34 |
| | | 2 | 235 | 1 | 2,47 |
| | | 2 | 237 | 1 | 3,03 |
| | | 2 | 351 | 1 | 25,04 |
| | | 2 | 251 | 1 | 0,66 |
| | | 2 | 251 | 2 | 0,33 |
| | | 2 | 251 | 3 | 0,52 |
| | | 2 | 334 | 1 | 1,93 |
| | | 2 | 334 | 2 | 2,58 |
| | | 2 | 336 | 2 | 1,16 |
| | | 2 | 336 | 3 | 0,96 |
| | | 2 | 350 | 2 | 1,95 |
| | | 2 | 350 | 3 | 0,63 |
| | | 2 | 381 | 1 | 17,12 |
| | | 3 | 128 | 1 | 1,63 |
| | | 3 | 128 | 3 | 10,64 |
| | | 3 | 131 | 1 | 4,78 |
| | | 3 | 132 | 1 | 0,98 |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 3 | 132 | 2 | 0,27 |
| | | 3 | 135 | 1 | 0,71 |
| | | 3 | 135 | 2 | 9 |
| | | 3 | 135 | 3 | 0,66 |
| | | 3 | 136 | 1 | 21,09 |
| 44616170-B | ELIZALDE USARRAGA, JUAN JOSE **175** | 1 | 31 | 1 | 20,64 |
| | | 1 | 31 | 2 | 9,48 |
| | | 1 | 31 | 3 | 1,6 |
| | | 1 | 31 | 4 | 1,1 |
| | | 1 | 31 | 5 | 0,56 |
| | | 1 | 32 | 7 | 0,86 |
| | | 2 | 51 | 1 | 2,14 |
| | | 7 | 70 | 1 | 18,02 |
| | | 7 | 70 | 2 | 2,87 |
| | | 1 | 21 | 3 | 82,19 |
| | | 1 | 17 | 1 | 35,54 |
| 15860322-M | HUICI LUJAMBIO, MARTIN **3** | 6 | 38 | 1 | 2,13 |
| | | 6 | 38 | 2 | 0,87 |
| 44152303-P | ZUBIETA URIA, JOSE RAMON **61,95** | 6 | 38 | 1 | 61 |
| | | 4 | 479 | 1 | 0,95 |
| 15894300-N | APECECHEA AROCENA, LUIS | 99 | 997 | | 1,61 |
| 15256151-K | APECECHEA LUJAMBIO, MARIA | 99 | 997 | | 121 |
| 15969494-L | APECECHEA SALAVERRIA, MARIA SOLEDAD | 99 | 997 | | 5,2 |
| 15902442-N | APEZETXEA AROZENA, JESUS MARI | 99 | 997 | | 20 |
| 34096423-G | APEZETXEA PERURENA, BEGOÑA | 99 | 997 | | 36,4 |
| 44640834-L | AROCENA ALMANDOZ, JULEN | 99 | 997 | | 2,12 |
| 34095281-N | AROCENA LOYARTE, JUAN | 99 | 997 | | 43,31 |
| 72655706-V | ECHEGUIA CESTAU, JUAN ANTONIO | 99 | 997 | | 1,58 |
| 15862272-T | ECHENIQUE HUICI, JULIAN | 99 | 997 | | 20 |
| 15914342-K | ECHEVERRIA HUICI, MARIA JESUS | 99 | 997 | | 20,9 |
| 15860497-L | ELICEGUI LUJAMBIO, AGUSTIN | 99 | 997 | | 1,61 |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 15860601-T | ELIZALDE ALSUA, ANTONIO | 99 | 997 | | 1 |
| 44616170-B | ELIZALDE USARRAGA, JUAN JOSE | 99 | 997 | | 174 |
| 15860515-Z | ESCUDERO HUICI, LAZARO | 99 | 997 | | 4,44 |
| 15959168-C | ESCUDERO LOYARTE, PABLO | 99 | 997 | | 16 |
| 72618972-Z | ESCUDERO MICHELENA, MARIA DOLORES | 99 | 997 | | 0,1 |
| 72661082-B | ESCUDERO ZUBELDIA, MILAGROS | 99 | 997 | | 8,7 |
| 15789589-C | EZCURRA ETXEKOLENEA, MARIA CARMEN | 99 | 997 | | 44,5 |
| 15987959-S | GAMIO SALAVERRIA, ARANTXA | 99 | 997 | | 1 |
| E31688179 | GAZTAOTZA, SDAD APEZETXEA Y OTROS | 99 | 997 | | 72,02 |
| 34083916-D | GOIZUETA GOIZUETA, LUCIA | 99 | 997 | | 10,1 |
| 15860570-T | HUICI LUJAMBIO, JOSE RAMON | 99 | 997 | | 1,61 |
| 15939208-R | HUICI PERURENA, FRANCISCO | 99 | 997 | | 17,96 |
| 72618962-G | JAUNARENA ZOZAYA, MARIA DOLORES | 99 | 997 | | 5,88 |
| 15860203-R | LEGARRETA ESCUDERO, MANUEL | 99 | 997 | | 1 |
| 15912963-E | LOIARTE IRIBARREN, JOKIN | 99 | 997 | | 7,75 |
| 34080879-P | LOIARTE LUKANBIO, MANUEL MARIA | 99 | 997 | | 2 |
| 15941490-Y | LOYARTE AROCENA, JESUS | 99 | 997 | | 18,5 |
| 15861909-M | LOYARTE AROCENA, JUAN FERMIN | 99 | 997 | | 22,4 |
| 15945477-Z | LOYARTE LUJAMBIO, ANA MARIA | 99 | 997 | | 1,61 |
| 15899088-Q | LOYARTE NOLASHOYAS, JOSE M. | 99 | 997 | | 10,55 |
| 15897880-G | MUTUBERRIA HUICI, JUAN | 99 | 997 | | 5,67 |
| 15894895-D | NARVARTE LOYARTE, DANIEL | 99 | 997 | | 1,61 |
| 15862281-D | NARVARTE LOYARTE, JOSE M. | 99 | 997 | | 5,51 |
| 44129715-Y | NAVARRO UNCHALO, AGUSTIN | 99 | 997 | | 5,8 |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 72439802-Z | OYARZABAL ZUBELDIA, ARANTXA | 99 | 997 | | 19,45 |
| 15997747-M | PERURENA ALTAMIRA, M.CARMEN | 99 | 997 | | 5,39 |
| 15976607-W | PERURENA ECHEVERRIA, ISAAC | 99 | 997 | | 2,7 |
| 72679921-J | PERURENA GOIZUETA, MªPILAR | 99 | 997 | | 140 |
| 72679923-S | PERURENA GRACIARENA, MIKEL | 99 | 997 | | 7,5 |
| 72655719-F | PERURENA INCHAUSPE, ANTONIA | 99 | 997 | | 7,86 |
| 15860733-W | SALABERRIA ZUBIRI, JOSE MARIA | 99 | 997 | | 2,11 |
| 72659378-D | VERGARA MIHURA, JUANA MARI | 99 | 997 | | 10,12 |
| 15841581-D | VILLABONA SARALEGUI, CONCEPCION | 99 | 997 | | 2 |
| 72475220-N | ZABALA GOIZUETA, MARI JOSE | 99 | 997 | | 45 |
| 15860795-H | ZUBIRI ARRIBILLAGA, SAGRARIO | 99 | 997 | | 14,81 |
| 72618949-Z | ZUBIRI LOYARTE, PEDRO | 99 | 997 | | 22,61 |
| 72655701-N | ZUBIRI LOYARTE, TIBURCIO | 99 | 997 | | 10,87 |
| 72667219-F | ZUGARRAMURDI AIZPURU, LUIS VALENTIN | 99 | 997 | | 2 |
| 15922592-Z | ZUGARRAMURDI CESTAU, JOSE MIGUEL | 99 | 997 | | 9,49 |
| 72618946-B | HUICI ZUBIRI, ENRIQUE | 99 | 997 | | 0,25 |
| 15046764-A | INDACOECHEA SALAVERRIA, JOSE JUAN | 99 | 997 | | 0,25 |
| 15860697-N | PERURENA NARVARTE, LAZARO | 99 | 997 | | 0,1 |

## 6.-BAKE EPAILE TITULARRAREN HAUTAKETA

2018ko urtarrilaren 30eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean Bake Epaile Titular plazaren iragarkia argitaratu zen. Ondoren, 2018ko otsailaren 6ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean aurreko iragarkiaren akats zuzenketa iragarri zen. Udaleko Iragarki taulan jendaurreko erakustaldian egon ondoren, 2018ko otsailaren 27an instantziak aurkezteko epea amaitu zen, Idazkaritzatik adierazten da ondorengo eskaerak daudela:

1.Iñaki Etxeberria Aranaz, 73.121.056-P N.A.N zenbakiduna, bere proposamena aurkezten du Bake Epaile Titular izateko.

Ikusirik eskatzaileak legeak eskaturiko baldintzak betetzen dituela.

Udalbatzak aho batez eta legeak agintzen duen erabateko gehiengoa kunplituz, erabaki du Bake Epaile Titular Iñaki Etxeberria Aranaz hautatzea.

**7.-MOZIOA: 2016ko urrian Altsasuko gertakarien gainean, Audientzia Nazionaleko ahozko epaiketa.**

Goizuetako Alkateak, honako mozioa aurkeztu dio Udalbatzari honek onartu dezan.

*MOZIOA*

*JUSTIFIKAZIOA*

2016ko ferien bezperan, urriaren 15ean jasotako gertakariak direla, eta aurtengo apirilaren 16an Audientzia Nazionalean izango den ahozko epaiketaren atarian gaudenean, gure kezkarik handiena aurkeztu nahi dizuegu Altsasuko 8 gazteri ezartzen ari zaien neurrigabeko prozedura judizialarengatik. Gazte horientzat 375 kartzela urte eskatu dituzte gertakariak terrorismo delitutzat kalifikatu dituztelako; horietako, hiruk, gainera, prebentziozko presondegian 400 egun baino gehiago daramate Madrilgo hainbat espetxetan.

Azpimarratu behar dugu 2017ko martxoaren 23an Nafarroako Probintzia Auzitegiak helegitea ebatsi zuela. Kaleratutako autoan honakoa adierazi zuen: “ez zeudela arrazoizko zantzurik ustezko terrorismo delitua gertatu zela ondorioztatzeko”. Horren ondorioz, epaiketa Nafarroan egitea eskatu zuten.

Nabarmendu nahi dugu ere, Barne Ministerioko iturrien arabera 9751 atentatu kasu kontabilizatu zirela 2016an. Horietatik, terrorismo atentatu gisa kalifikatu den lehenengoa eta bakarra Altsasukoa izan da.

Agerian jarri nahi dugu ere, denbora tarte luze honetan oinarrizko hainbat eskubide urratu direla, hala nola: errugabetasunaren printzipioa, epaile naturala eta inpartziala izateko eskubidea, eta besteak beste, defentsarako eskubidea. Abokatuek salatu dute instrukzio epaileak akusazioaren bertsioa baino ez duela aintzat hartu. Horrez gain, ez u egile neutral baten egin akusazioren txostena, kasuan parte den Guardia Zibilak baizik. Horrez gain, komunikabideek epaiketa paraleloa egin dute gure herriaren errealitatea desitxuratuz. Gauzak horrela, zuzenbidean adituak diren juristek adierazi dute legeen gehiegizko erabilera baten aurrean gaudela, NBEko Giza

eskubideen errelatoreek aurrez salatu izan duten bezala. Garinera, defentsari ukatu dizkiote proposatutako proba ia gehienak: testiguak, dokumentuak eta perizialak.

Prozesu honek guztiak izan duen bilakaera ikusita ondorioztatzen dugu gertatutakoak larriki kaltetzen dituela gizarte demokratiko eta Zuzenbide Estatu batek gidatu beharko lituzkeen oinarrizko printzipioak, eta hondatzen duela hiritarrek babestu beharko lituzkeen segurtasun juridikoa

Hori dela eta, Udalbatza honek aho batez, honakoa adosten du:

1.-Altsasuko Osoko Bilkurara atxikitzen da Iruñean apirilaren 14an, 17.30tan deituriko manifestazioa deialdira “Altsasu Gurasoak” eta “Altsasukoak Aske” plataformak elkarrekin deitu dutena. Manifestazio horrek giza eskubideen, askatasunaren eta berme demokratikoen aldeko konpromisoa erakusteko asmoa du.

2.-Herritarrei manifestazioan parte hartzeko deia egiten die Udal honek

3.-Akordio hau Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari jakinaraziko dio udal honek, eta parte hartzeko gonbidapena luzatuko die tokian tokiko erakunde guztiei, hala nola bat egin dezaketen bestelako erakundeei ere.

4.-Hartutako akordio hau komunikabideei eta antolatzaileei (Altsasuko Gurasoak eta Altsasukoak Aske) jakinaraziko die.

## 8.-ALKATEAREN EBAZPENAK

Alkatearen ebazpenen berri ematen du Alkateak, **2018-013etik 023ra** zenbakia duten alkatearen ebazpenak dira. Udalbatza jakitun gelditzen da eta aho batez berretsi egiten ditu

13 zenbakia: Alkatearen eskuordetza Alkateordean, otsailaren 2tik 28ra bitartean

14 zenbakia: Hijos de Tomas Martin SL.-ri Alkantzuriaingo pista erabiltzeko baimena, Lucia Larrechearen mendi aprobetxamendua ateratzeko

15 zenbakia: Aralar Musika Eskolari baimena, ekainaren 12an Ganbara eta Herriko Etxeko azpia kontzerturako erabiltzeko

16 zenbakia: Izarbeibarreko Errobi AEK-ri, martxoaren 9,10 eta 11n, Ganbara erabiltzeko baimena

17 zenbakia: Esteban Arozena Mitxelena, Kale Nagusiko 63B-3A etxebizitzan komona berritzeko obra baimena

18 zenbakia: Asun Lujambio Echeverriaren jarduera sailkatu baimena, Martin Huici Lujambiori eskualdatzeko baimena

19 zenbakia: Lucia Larrechea Taberna, partzela desberdinetan matarrasa egiteko hasierako izapidetza

20 zenbakia: Karnabaltan, tabernen ordutegiaren luzapena

21 zenbakia: Tifanitxo Eraikiaren proiektua idatzi eta zuzentzeko asistentzia kontratuaren esleipena LUA Arkitektuk SLP-ri

22 zenbakia: Mendialdea Mankomunitatea, Goizuetako garbigunerako jarduera sailkatu baimena

23 zenbakia: Mendialdea Mankomunitatea, Goizuetako garbigunea egiteko obra baimena

**9.-ESKARI ETA GALDERAK**

Alkateak eskari edo galderarik ba ote duten galdetzen die udalbatzako kideei. Galdera edo eskaririk egiten ez denez, arratsaldeko zortziak direnean alkateak bukatutzat eman du bilera, nik, Idazkariak ziurtatzen dut